# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia | Iruña, 2016ko uztailaren 4a | 95. ZK.

## A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean dituen aztermahaien eta foroen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarri dituen aztermahaien eta foroen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Erresonantzia Zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, 2013ko, 2014ko eta 2015eko Lan-eskaintza Publikoaren aldaketan kendutako maisu-maistren kidegoko lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
—Galdera, Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatuko diren ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Galdera, Mugikortasuna 2016 Nafarroa lehiaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—Galdera, Nafarroan politika onbideratzeko ematen ari diren urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
—Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
—Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sisteman biltzen diren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—Galdera, Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoak José Vila ikastetxe publikoa izan zenaren instalazioetara lekualdatzeko egin duen proposamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila murrizte aldera hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—Galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren irizpidea Andosillako Udalak Osoko Bilkuran hartutako erabakiari buruz, zeinaren bidez Departamentuari eskatzen baitzaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailak herrian ezartzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

—Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—Galdera, etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
—Galdera, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—Galdera, jjakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
—Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHIan jarraipena emateko. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
—Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
—Galdera, eskola-jazarpenaren aurkako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzekoa. Izangai onartuen behin betiko zerrenda (43. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean dituen aztermahaien eta foroen kopuruari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean dituen aztermahaien eta foroen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín andreak idatzizko galdera egin du aztermahaien eta foroen kopuruari buruz eta haien kostuari buruz (9-16/PES-00195 y 9-16/PES-00196). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Garapen Ekonomikorako Departamentuak badauka Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia. Inongo kosturik ez du.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak badauka Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa. Inongo kosturik ez du.

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia badauka, eta horrek ere ez du kosturik.

Osasun Departamentuak badauka Osasunaren Foroa, eta batez beste 1.000 euroko kostua dauka.

Kultura Departamentuak Navarra Arenaren Lan Mahaia badauka, inongo kosturik ez duena.

Azkenik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak Ebroko Foroa dauka, 3.000 euroko kostua duena, eta Nafarroako Esnearen Mahaia, kosturik gabea, eta Txerri-aziendaren Mahai Teknikoa, gasturik gabea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarri dituen aztermahaien eta foroen kostuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak departamentu bakoitzean ezarri dituen aztermahaien eta foroen kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín andreak idatzizko galdera egin du aztermahaien eta foroen kopuruari buruz eta haien kostuari buruz (9-16/PES-00195 y 9-16/PES-00196). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Garapen Ekonomikorako Departamentuak badauka Iruñerriko Mugikortasunaren eta Garraioaren Mahaia. Inongo kosturik ez du.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak badauka Sexu-esplotaziorako emakume-salerosketaren aurkako Nafarroako Foroa. Inongo kosturik ez du.

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia badauka, eta horrek ere ez du kosturik.

Osasun Departamentuak badauka Osasunaren Foroa, eta batez beste 1.000 euroko kostua dauka.

Kultura Departamentuak Navarra Arenaren Lan Mahaia badauka, inongo kosturik ez duena.

Azkenik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak Ebroko Foroa dauka, 3.000 euroko kostua duena, eta Nafarroako Esnearen Mahaia, kosturik gabea, eta Txerri-aziendaren Mahai Teknikoa, gasturik gabea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Erresonantzia Zerbitzuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Erresonantzia Zerbitzuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higueras jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00202), Tuterako Reina Sofía Ospitaleko erresonantzia-zerbitzuarekin lotutako zenbait gairi buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

– Zein da Tuterako Reina Sofía Ospitaleko erresonantzia zerbitzua abian jartzeko aurreikuspena?

Gaur egun, eskariaren zenbatespen erreal bat egiten ari gara, 2025/2030 urteei begira. Zenbatespen horrek lagundu eginen du zehaztasun handiagoz ezartzen zein diren, barrutiko beharrizanak kontuan hartuta, ekiporako egokienak diren baldintzak eta egituraketa.

Gaur den egunean, ezin dugu zehaztu noiz hasiko den funtzionatzen.

– Zein aurrekontu beharrizan dago beharrezko ekipamenduari aurre egiteko?

Ekiporako zehazten diren ezaugarriak eta egituraketaren arabera, inbertsioaren zenbatekoa 600.000 eta 1.200.000 euro artekoa izan ahalko da.

– Zein da Ospitaleko instalazioetan erresonantzia zerbitzua kokatzeko aurreikuspena?

Ekiporako aurreikusi den kokaleku egokiena, egungo erradiologia zerbitzuaren ondoan dago, zabaltze-lan batzuk eta berrantolaketa txiki bat eginda.

– Zein aurrekontu beharrizan dago egin beharko den obra zibilari aurre egiteko?

Jarduketa-esparru osoari buruzko balioespen ekonomiko bat egiten ari gara.

– Zein da zerbitzua abian jartzeko beharko diren langileen gaineko aurreikuspena?

Erradiodiagnostikoaren arloko sendagile espezialista bat.

Erradiodiagnostikoko teknikari espezialista bat.

Erizain bat.

– Zein da erresonantzia proba bakoitzeko kostuen analisi konparatiboa, kontuan hartuta abian jarri ondoren izanen duen kostua, erositako ekipoaren amortizazioaren gastua barne, eta gaur egungo kostua?

Une honetan, ezin dugu eman eskatutako informazioa, zeren eta aztertzen ari baikara nola egin eta zenbat inbertitu aipatutako ekipamenduan (erosketa, rentinga, ekipoaren egituraketak eta ezaugarriak eta abar).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

# Galdera, 2013ko, 2014ko eta 2015eko Lan-eskaintza Publikoaren aldaketan kendutako maisu-maistren kidegoko lanpostuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2013ko, 2014ko eta 2015eko Lan-eskaintza Publikoaren aldaketan kendutako maisu-maistren kidegoko lanpostuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00203 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Egindako galderetatik lehenengoari buruz, non Gobernuak egindako aldaketaren ondorioz deuseztatu diren maisu-maistren lanpostuei buruz galdetzen baita, esan beharra dago ezen, maiatzaren 4ko 27/2016 Foru Dekretuak aipatu bezala –maiatzaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, martxoaren 25eko 20/2015 Foru

Dekretuko lanpostuetatik maisu-maistren 17 lanpostu kendu direla; hain zuzen ere, plantilla organikoan honako zenbaki hauek dituztenak dira: 30874, 30883, 30888, 30889, 30921, 30933, 30935, 30944, 30951, 30962, 30969, 30976, 30981, 30983, 30985, 30986, 31010, 31015, 31026, 31036, 31044, 31047, 31051, 31076, 31077, 31091 eta 31097.

Egindako bigarren galderan haiek deuseztatzeko izandako irizpidea aipatzen da. Puntu horri buruz, esan beharra dago martxoaren 25eko 20/2015 Foru Dekretuan sartutako 358 lanpostuetatik 134 lanpostu Hezkuntza Departamentuari zegozkiola, eta kopuru horrek onetsitako eskaintzaren % 37,43 egiten duela. Kontuan hartuta lanpostu guztietatik 71 kendu behar zirela, 20/2015 Foru Dekretuan onetsitako enplegu eskaintza publikoaren aurka Estatuak aurkeztutako errekurtsoa erretira zedin lortzeko, Hezkuntza Departamentuari dagokio, proportzioan, 71 lanpostu horietatik % 26,57 kentzea; hau da, irakasleen 27 lanpostu.

Kontuan hartuta 20/2015 Foru Dekretuan onetsitako 134 lanpostuetatik 100 maisu-maistren kidegokoak direla, 20 bigarren hezkuntzako irakasleen kidegokoak eta 14, azkenik, hezkuntzako ikuskatzaileen kidegokoak, egokitzat jo da maisu-maistren kidegotik 27 lanpostu kentzea, ahal dela enplegu publikoaren eskaintzari eusteko ukitutako irakasle-kidego guztietan.

Azkenik, Hezkuntza Departamentuari dagokion behin betiko eskaintzari buruzko azken bi galderei eta deialdiaren aurreikuspenari erantzuteko, esan daiteke Estatuak erretiratzen duenean martxoaren 25eko 20/2015 Foru dekretuaren bidez –maiatzaren 4ko 27/2016 Foru Dekretuaz aldatua– Nafarroako Gobernuak onetsitako enplegu eskaintza publikoaren aurka aurkeztutako errekurtsoa, Hezkuntza Departamentuak maisu-maistren 73 lanpostu, bigarren hezkuntzako 20 lanpostu eta hezkuntzako ikuskatzaileen 14 lanpostu eskaini ahalko dituela, eta horiek sartuko direla kasuko enplegu eskaintza publikoa onetsi eta hurrengo hiru urteetan Departamentuak onesten dituen deialdietan, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak xedatzen duen bezala.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatuko diren ekintzei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatuko diren ekintzei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du "Agiñako multzo megalitikoari konponbide duina emateko gauzatuko diren ekintzei buruz (9-16/PES-00204). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Inbentario Arkeologikoan, Agiñako parajean, honako aztarnategi arkeologiko hauek daude katalogatuta:

Agiña (kodea: 09311530020)
Gotorleku-herria.

Agiña Ipar (kodea: 09311530016)
20 harrespilen multzoa.

Agiña I (kodea: 09310003) Trikuharria.

Agiña Erdi (kodea: 09310017)
4 harrespilen multzoa.

Agiña Hego (kodea: 09310018)
3 harrespilen multzoa.

Agiña Soroa (kodea: 09311530019) Harrespila.

Agiña II (kodea: 09311530004) Trikuharria.

2. Aipatutako monumentuak kultur intereseko ondasuntzat jo dira legearen indarrez (Nafarroako Kultura Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria).

Nafarroan, gaur arte, historiaurreko 1288 monumentu megalitiko daude katalogatuta (595 trikuharri, 285 harrespil, 277 tumulu eta 131 iruinarri), eta ez da zilegi haien artean bereizkuntza edo kategoria desberdinak ezartzea, haien ezaugarri arkeologikoez haratago.

3. Arkeologia Atalak 2015eko ekainaren 12an egindako ikuskatzean, ez zen inongo kalterik aurkitu ondasun katalogatuetan. Inguruabar horiek berak aurkitu dira maiatzaren 31n egindako bisitan; hori dela eta, kalterik ez da izan ondare arkeologiko katalogatuan.

Aurkitu diren arazo bakarrak paisaia-izaerakoak dira:

– Landaredia (zuhaitzak ez) haztea monumentuetan edo haien inguruetan.

– Egurra ateratzen diharduten ibilgailu eta makinen zirkulazioa, ingurunea nahasten dutenak (ibilgailu markak, ebaketa-hondarrak, egur pilak eta abar).

Lehenengoari dagokionez, esan beharra dago egokiena dela indusketa egin gabeko eta gizakiaren esku-hartzerik gabeko aztarnategi arkeologikoei eustea, haiek zainduz kalterik izan ez dezaten. Landaredia horrek lur-azpia edo ikusgarri diren egiturak (indusketa egindako aztarnategiak) larriki kaltetzen dituenean baizik ez litzateke eragin kaltegarri horiek zuzentzera jo beharko.

Bigarrenari dagokionez, aldizkako jarduera bat da, eremu horretan eta Nafarroako beste hainbatetan egiten dena, tokiko ekonomiaren euskarri gisa. Jarduera hori eta ondare arkeologikoa kontserbatzea bateragarriak izan daitezke.

Zuhurtziazko neurri gisa, Arkeologia Atalak Lesakako Udalarekin eremuan egiten diren egurateratzeak berraztertzeko asmoa dauka.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

---

## Galdera, Mugikortasuna 2016 Nafarroa lehiaketari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mugikortasuna 2016 Nafarroa lehiaketari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Guzmán Garmendia Pérez jaunak 9-16/PES-00205 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

“Mugikortasuna 2016 Nafarroa” ikastaroaren xedea da negozio-ideiak eta proiektuen edo/eta produktu eta zerbitzu berrien garapena sustatzea mugikortasun gero eta jasangarriago baterantz joateko.

Bere aldetik, “Gure gizarteko mugikortasun-beharrizanak eta, bereziki, Nafarroako garraio-beharrizanak aztertzeko Lantaldeak” helburu du pertsonentzako eta salgaietarako garraio jasangarriko formulak eta neurriak diseinatzen laguntzea, halako moduz non errepidezko joan-etorriak gutxituko diren eta joan-etorri horiek hain kutsagarriak ez diren eta erregai fosilen ordez energia berriztagarrien kontsumorako egokiagoak diren beste komunikabide batzuetara aldatuko diren; esate baterako, tren bidezko garraiora.

Bi jarduera horiek, horrenbestez, aldi berean gara daitezke, eta inoiz ere ez dira elkarren kontrakoak izaten. Alderantziz, mugikortasun jasangarriaren arloko enpresa-proiektu berriak garatzea lagungarri gertatuko da Nafarroako sektore pro-

duktiboa mugikortasun jasangarriaren erronkari aurre egiteko moduan egon dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an.

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

---

## Galdera, Nafarroan politika onbideratzeko ematen ari diren urratsei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan politika onbideratzeko ematen ari diren urratsei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00206), non hauxe azaltzen baitu: OCUren txostena kontuan harturik, Nafarroako Gobernuak uste al du Nafarroan behar diren urratsak egiten ari direla Nafarroako politika onbideratzeko eta irekia eta gardena izateko? Hauxe da Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna: H

2016ko maiatzeko “OCU-Compra Maestra” aldizkariak argitaratutako erreportajean, hainbat administrazio publikoren –zentrala, autonomikoa, lurraldekoa eta tokikoa–gardentasun atarien balioespen bat egiten da, bost blokeri dagokienez: lansariak eta ondarea, jarduerak, kontratuak, aurrekontua eta nabigatzea; bai eta informazio eskariei ematen zaien erantzuna ere. Egindako balioespenerako, erreportajean azaltzen denez, Nazioarteko Gardentasunak ezarritako adierazleei jarraitu zaie.

Lansarien eta ondarearen atalean, goi-karguen zerrendako ordezkari hautetsien eta langile administratiboen soldatak, ondasun-aitorpenak eta curriculuma biltzen dira. Haien lansari-mailak, ondasun higiezinak eta jabetzako nahiz alokairuko ibilgailu ofiziala ere jasotzen dira.

Jardueren atalean, honako hauek jasotzen dira: erabakitze-organoen gai-zerrendak, bileretako aktak edo hartutako erabakiak, ordezkarien agendak, legegileen jarduera, lege aurreproiektuen eta erregelamenduen argitaratzea eta herritarren eskura dauden izapide administratiboen zerrenda.

Kontratuei buruzko atalean, egindako kontratuen zerrenda, haien data, lizitaziorako bideak, zenbatekoak, esleipen-hartzaileak, kontratazio-mahaiko kideak eta abar aipatzen dira.

Aurrekontuari dagokion blokean, hauexek aipatzen dira: onetsitako aurrekontuak, biztanle bakoitzeko diru-sarrerei, gastuei eta inbertsioari buruzko datu estatistikoekin, zorraren maila eta haren bilakaera, bai eta hornitzaileentzako ordainketen batez besteko aurreikuspena ere.

Nabigatzeari dagokionez, aipatzen dute informazioak indexatuta egon behar duela, ongi egituratuta, eta bera bilatzeko iragazkiak eduki behar direla. Gaurkotuta egon behar du, esteketan akatsik eduki gabe, eta herritar arruntak ulertzeko moduko hizkera batean idatzita. Atal honetan aintzat hartzen da, aldi berean, atarira iristeko erraztasuna.

Autonomia erkidegoek egindako galderari emandako erantzunari edo izapidetutako informazio-eskariari emandako erantzunari dagokionez:

Zein aurrekontu bideratu da urte bakoitzean basosuteen prebentziorako eta haien kontrako borrokarako, 2013an, 2014an, 2015ean eta 2016an? Nafarroa da galdera horri erantzun egokia eman dioten bost autonomia erkidegoetako bat.

Erreportajean aurkezten den balioespena zehazten da atal bakoitzeko izarrak emanez, baina ez da azaltzen zein den erabilitako metodologia, eta neurtutako adierazleen balioespen ez kuantitatiborik, ez kualitatiborik ere ez da zehaztu. Horri dagokionez, adibide moduan, aipatu beharra dago jardueren atalean puntuazio handiena duten lau autonomia erkidego daudela, 5 izarrekin, eta beste 8 erkidegok 8 izar lortu dituztela; horietako bat Nafarroa da. Dena den, amaierako taulan aurkeztutako ordenak zerikusirik batere ez du autonomia erkidego horietako bakoitzak egiazki lortu duen posizioarekin, ez eta autonomia erkidegoek atal horretan eskainitako informazioaren kopuruarekin eta kalitatearekin ere. Gauza bera esan daiteke baloratutako bloke guztiei buruz.

Bitxi samar gertatzen da egiaztatzea ezen hain zuzen ere Nafarroan okerren baloratutako atala, izar kopuru txikiena lortuz, goi-kargudunen lansarien eta ondasunen aitorpenari buruzkoa dela. Bloke horri buruzko informazioa gardentasunaren atalean ez ezik –dela informazio publiko emateaen ikuspegitik, dela gobernu-ekintzaren ikuspegitik–, datu irekien, OPEN DATA, formatuan ere aurkezten da, eta Nafarroako gizartean oihartzun handiena lortzen duen Gobernu Irekiaren Atariaren informazioetako bat da.

Hainbat eragile, entitate pribatu, GKE eta abarrek egindako administrazio publikoen gardentasunari buruzko azterlan, balioespen eta txosten gero eta gehiago azaltzeak, askotariko metodologia eta adierazleak erabiliz, agerian jarri du jarduera publikoaren gardentasuna neurtzeko metodologia bat lantzek beharra, neurketa hori homogeneoa izan dadin eta lurralde guztietan balioespena bera izan dadin. Horri dagokionez, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak autonomia erkidegoekin egindako bileren emaitza da –eta bilera horietan Nafarroak parte-hartze aktiboa du– AEVALekin –Ebaluazioaren eta Kalitatearen Agentzia– metodologia hori finkatzeko lan egin izana, finkatze horren bidez neurketa homogeneo bat bermatzeko eta, halaber, auto-ebaluaziorako tresna bat izateko, zeinak gardentasun-prozesuaren berrikuspena eta hobekuntza bideratuko baitu.

Zehaztu beharra dago ezen, Guzmán Miguel Garmendia Pérez foru parlamentariak egindako galderan aipatzen den txostena ikusita, haren ezaugarriak direla eta, ezin dela ez ondorioztatu ez eratorri Nafarroako Gobernua urratsak egiten ari den ala ez Nafarroako politika onbideratzeko, hura irekiago eta gardenago eginez.

Hala eta guztiz ere, sendotasunez baiezta daiteke, aipatutako erreportajeak dioena dioela ere, Nafarroako Gobernuak urratsak egiten ari dela politika irekiago eta gardenagoa eraikitzeko.

Horri dagokionez, nabarmendu behar dira, besteak beste, Gobernuak aurrera eraman dituen jarduketak:

1. Gobernu Irekia bultzatu eta zabaldu da, herritarren aurrean zein eragile sozial eta ekonomikoen artean eta Administrazioan bertan –hain zuzen ere, haren langileen artean eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeko 2. artikuluan aipatzen diren organo eta entitateen artean–. Besteak beste, nabarmentzekoa da zenbait jardunaldi antolatu direla eta gogoeta egiteko topaketak antolatu direla.

2. Gobernu Irekiaren Ataria egituratu eta sakondu da, Gardentasunaren, Partaidetzaren eta Lankidetzaren atari gisa eratuz:

a. Atari eskuragarriago bat egituratu da:

i. Gobernu Irekiaren Atariari toki nabarmenagoa eman zaio navarra.es atariko Home-an.

ii. Oztopoak kendu dira: irisgarritasunaren parametroa berrikusi dira eta gizartearen sektore zabalago batera iristeko baliabideak sartu dira, atariarekin harreman handiagoa izatea bideratzen duten baliabideak jarriz, audio sistemen eta bestelakoen bitartez.

iii. Atari elebiduna gaitu da.

iv. Teknologia irekiak erabili dira, formatu irekiak eta berrerabilgarriak dituzten artxiboekin.

b. Atari gardenago bat egituratu da:

i. Gobernuaren jarduketak eta erabakiak ikusgarri jarri dira.

ii. Publizitate aktiboa bultzatu da, informazioa eskatu behar izan gabe, betiere oinarrizko eskubideak errespetatuz.

iii. Egituratzea eta edukien aurkezpena berrikusi dira.

iv. Informazio bermatua bermatzen da.

v. Informazioa ikusgarri nola egin aztertu eta bilatu da, hura hobeki uler dadin.

vi. Kontu-ematea ikusgarri egin da.

c. Atariak herritarren partaidetzarako bide aktibo gisa betetzen duen zereginean sakondu da, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren batera hurbiletik lan eginda. Gobernu Irekiaren atarian web-espazio berariazkoak bildu dira, non jasotzen baita herritarrek nolako partaidetza izan duten plan eta politika publikoen finkapenean eta ebaluazioan.

3. Herritarrei politika publikoetan Gobernuak erabakiak hartzeko prozesuari buruzko informazioa zabaltzeaz gainera –hura gardenago eginez–, aukera eman da herritarrak biltzeko politika publiko horiek diseinatu, finkatu, landu eta ebaluatzeko fasean.

4. Herritarrek “informazio publikoa ezagutzeko eta eskuratzeko” daukaten eskubidea bermatu da, informazio publikoa eskuratzea erraztuz eta Administrazioa eta haren langile publikoak inplikatuz haiek lortzeko, betiere eskatzeko prozedura berrikustearen bidetik, herritarrek errazago eskura dezaten.

5. Informazio formatu irekietan landu dadin bultzatu da, zeren eta datuak berrerabiltzeko aukera ematen baitute eta baliabideak eta aberastasuna sortzen baitute, Open Datan eskaintzen den informazioa osatuz.

6. Beste erakunde eta entitate batzuekin lan egin da, jarduera publikoan gardentasuna lortzeari begira.

7. Beste autonomia erkidego eta entitate batzuekin parte hartu da adierazle kuantitatibo zein kualitatiboak finkatzeko, hain zuzen ere administrazio publiko bakoitzaren gardentasun-maila neurtu ahal izateko.

Aipatutako horiek dira egin ditugun eta egiten jarraituko ditugun jarduketetako batzuk, eta haietan sakondu ere sakondu beharko da, eta beste jarduketa batzuk gehitu beharko dira, gardentasuna Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa osatzen duten esparru guztietara eta hari lotutako sektore publikora eramateko.

Horrenbestez, Guzmán Garmendia jaunak egindako galderari erantzun dakioke esanez “OCU-Compra Maestra” aldizkarian argitaratutako erreportajeari erreparatuta, ezin dela inongo ondoriorik atera, eta, aldiz, sendotasun osoz baiezta daitekeela Nafarroako Gobernuak garatu dituen jarduketak beharrezko urratsak direla politika publiko irekiago eta gardenago bat eraikitzeko bidean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 31n

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria María José Beaumont Aristu

# Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00207), oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako esku-hartzeei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

EMANDAKO INFORMAZIOARI BURUZKO ARGIPENAK:

Aipatu beharra dago dokumentu honetan ematen diren datuak gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen informazio-sistematik (SIUSS, 5. bertsioa) lortu direla. Sistema honek web-ingurune batean lan egiten du, eta datu-basea Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Berdintasuneko Ministerioan dago ostatatua, nahiz eta autonomia erkidego bakoitzak datu estatistikoak edozein unetan eskura ditzakeen. Hala eta guztiz ere, Iruñeko Udaleko auzo unitateek SIUSSen lehenagoko bertsio bat erabiltzen dute, zeinak oraindik ere ez baitu web-ingurunean lan egiten; hori dela eta, Eskubide Sozialetako Departamentutik ezin ditugu ustiatu entitate horren 2016ko datuak.

Toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren artean egindako finantzaketa-hitzarmenaren arabera, bai eta maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretuaren arabera ere, zeinak onesten baitu Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea oinarrizko gizarte zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua, gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateek “SIUSSen datuen iraulketa” deitzen dena aurrekontua bete beharreko ekitaldiaren hurrengo urtarrilean egiteko betebeharra daukate; horrenbestez, 2016. urteari buruzko informazioa 2017ko urtarrilean jasoko da.

Hala eta guztiz ere, toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren arteko lankidetza ohikoa da. Hori dela eta, Iruñeko Udalari 2016. urteari buruzko datuak eskatu zaizkio, eta informazio hori eman ahalko dugu toki entitateak eskatutako lana egiten duenean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

(Oharra: Foru parlamentarien eskuragarri dituzte aipatutako datuak parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

# Galdera, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 13ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00208), etxez etxeko laguntza zerbitzuari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 5eko idazkiaren bidez, aipatutako parlamentariak informazioa eskatu zuen “Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren 2015eko oroitidazkiari buruz eta 2016ko hilabeteetako datuak eskura ote dituzten jakiteko”. Zehazki, honako galdera hauei erantzutea nahi du:

• Lehena: Zein izan zen 2015ean udaletako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen aldetik arreta jaso zuen biztanleria, eta horren banaketa geografikoa, barrutika?

• Bigarrena: Arreta jaso duen biztanleriaren bilakaera.

• Hirugarrena: Itxaron-zerrenda eta banaketa geografikoa, barrutika.

• Laugarrena: erabiltzaileen ezaugarriak. Arreta jaso dutenen banaketa, sexuaren eta adinaren arabera.

• Bosgarrena: ELZen aldetik arreta jaso dutenen menpekotasun egoera.

Esan beharra dago dokumentu honetan ematen diren datuak oinarrizko gizarte zerbitzuek, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateen artean ezarritako finantzaketa-hitzartutako finantzaketa-hitzarmena justifikatze aldera, aurkeztutako oroitidazki teknikoetatik lortu direla.

Hitzarmen horien eta Toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren artean egindako finantzaketa-hitzarmenaren arabera, bai eta maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretuaren arabera, toki entitateek txosten tekniko eta ekonomikoak aurrekontua bete beharreko ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko urtarrilean edo otsailean aurkeztu beharko dituzte.

Horri erantzuteko, aldez aurretiko bi gai aipatu behar dira:

Lehena. Dokumentu horretan emandako datuetan aldeak egon daitezke Nafarroako 2015eko oinarrizko gizarte zerbitzuetan esku hartzeko amaierako oroitidazkiarekin konparatuta, zeren eta azken horiek oinarrizko osasun laguntzaren eta gizarteratzeren zerbitzuari aurkeztutako oroitidazkiak baloratzeko prozesuan baitaude.

Bigarrena. Ezin da 2016. urteari buruzko daturik eman, zeren eta datu horiek ez baitira lortzen gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen informazio sistematik (SIUSS), eta oinarrizko gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzko araudiari jarraituz, entitateek 2016ko ekitaldiko justifikazioa 2017ko urtarrilean eta otsailean aurkeztu beharko bailukete.

Horri erreparatuta, galderei erantzunen diegu:

Lehena: Zein izan zen 2015ean udaletako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuen aldetik arreta jaso zuen biztanleria, eta horren banaketa geografikoa, barrutika?

2015ean, oinarrizko gizarte zerbitzuek, udaletako etxez etzeko laguntza zerbitzuen bitartez, 4.298 pertsona artatu zituzten.

Udaletako etxez etxeko laguntza zerbitzuek erkidegoko guztizko biztanleriaren ehuneko 0,67 artatu zuten.

Estaldura handiena duten oinarrizko eskualdeak Izaba, Auritz, Los Arcos eta Viana dira, eta bat datoz jarduketa bereziko eskualdeak izan (5.000 biztanle baino gutxiagokoak) eta 65 urtetik gorako biztanleen adierazle handiak dituztenekin.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak artatutako biztanleak, eta oinarrizko eskualdeko biztanleen guztizkoan egiten duten ehunekoa

| Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | Biztanleria | Arreta jaso duten pertsonak, guztira | Eskualdeko biztanleriaren gaineko ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Allo | 5.539 | 86 | % 1,55 |
| Altsasu | 9.747 | 48 | % 0,49 |
| Antzin | 4.466 | 79 | % 1,77 |
| Agoitz | 4.522 | 39 | % 0,86 |
| Aranguren | 8.092 | 15 | % 0,19 |
| Artaxoa | 5.522 | 33 | % 0,60 |
| Auritz | 2.460 | 59 | % 2,40 |
| Aiegi | 2.026 | 29 | % 1,43 |
| Barañain | 21.444 | 50 | % 0,23 |
| Berriozar | 28.050 | 99 | % 0,35 |
| Buñuel | 14.361 | 78 | % 0,54 |
| Burlata | 18.162 | 56 | % 0,31 |
| Zarrakaztelu | 4.871 | 25 | % 0,51 |
| Cascante | 11.875 | 45 | % 0,38 |
| Cintruénigo | 10.023 | 85 | % 0,85 |
| Zizur | 17.747 | 56 | % 0,32 |
| Corella | 12.256 | 120 | % 0,98 |
| Doneztebe | 5.460 | 40 | % 0,73 |
| Eguesibarra | 17.450 | 25 | % 0,14 |
| Elizondo | 8.656 | 34 | % 0,39 |
| Lizarra | 14.663 | 54 | % 0,37 |
| Etxarri Aranatz | 6.660 | 23 | % 0,35 |
| Uharte | 8.975 | 32 | % 0,36 |
| Irurtzun | 8.186 | 60 | % 0,73 |
| Izaba | 1.534 | 28 | % 1,83 |
| Leitza | 4.071 | 50 | % 1,23 |
| Lesaka-Bortziriak | 8.702 | 60 | % 0,69 |
| Lodosa | 11.489 | 167 | % 1,45 |
| Los Arcos | 2.500 | 51 | % 2,04 |
| Noain | 15.042 | 48 | % 0,32 |
| Erriberri | 8.838 | 77 | % 0,87 |
| Orkoien | 7.408 | 16 | % 0,22 |
| Iruña | 197.604 | 1.554 | % 0,79 |
| Azkoien | 13.908 | 71 | % 0,51 |
| Gares | 7.959 | 57 | % 0,72 |
| Zaraitzu | 1.757 | 40 | % 2,28 |
| San Adrián | 14.186 | 73 | % 0,51 |
| Zangoza | 10.473 | 76 | % 0,73 |
| Tafalla | 13.344 | 68 | % 0,51 |
| Tutera | 35.358 | 136 | % 0,38 |
| Ultzama | 3.765 | 61 | % 1,62 |
| Valtierra | 13.338 | 137 | % 1,03 |
| Viana | 4.598 | 94 | % 2,04 |
| Villatuerta | 5.014 | 63 | % 1,26 |
| Atarrabia | 12.465 | 101 | % 0,81 |
| Orokorra, guztira | 644.566 | 4.298 | % 0,67 |

Gizarte Zerbitzuetako barrutietan artatutako pertsonen banaketari dagokionez, Iruñeko eta Iruñerriko barrutiak du kontzentrazio handiena, Nafarroan artatutako pertsonen ehuneko 49 hartzen baitute, baina horrek zuzeneko lotura dauka Nafarroako biztanleriaren pilaketa handiena bertan egotearekin. Hala eta guztiz ere, etxez etxeko laguntza zerbitzuak barruti horietako bakoitzean daukan eragina aztertzen badugu, Lizarrako eta Ipar-ekialdeko barrutiak dira estaldura handiena dutenak; estaldura txikiena, berriz, Iruñean, Iruñerrian eta Tafallako barrutian gertatzen dira.

Barrutietan artatutako biztanleak, eta barrutiko biztanleen guztizkoan egiten duten ehunekoa

| Oinarrizko gizarte zerbitzuaren barrutia | Biztanleria | Arreta jaso duten pertsonen kopurua | Barrutiko populazioaren guztizkoaren gaineko ehunekoa |
|---|---|---|---|
| Lizarra | 72.440 | 753 | % 1,04 |
| Ipar-ekialdea | 20.746 | 242 | % 1,17 |
| Ipar-mendebaldea | 51.482 | 315 | % 0,61 |
| Iruña eta Iruñerria | 356.204 | 2.113 | % 0,59 |
| Tafalla | 46.483 | 274 | % 0,59 |
| Tutera | 97.211 | 601 | % 0,62 |
| Orokorra, guztira | 644.566 | 4.298 | % 0,67 |

Bigarrena: Arreta jaso duen biztanleriaren bilakaera.

Artatutako biztanleriaren bilakaera (2011-2015)



Hirugarrena: Itxaron-zerrenda eta banaketa geografikoa, barrutika.

Datu horrek 2015eko abenduaren 31n itxaron-zerrendan zeuden pertsonei egiten die erreferentzia.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen % 51k (23) itxaron-zerrenda dute. Honakoa da zerbitzuz zerbitzuko banaketa:

Itxaron-zerrendan dauden pertsonak,
oinarrizko gizarte zerbitzu bakoitzean, 2015-12-31n

| Oinarrizko gizarte zerbitzuak | Itxaron-zerrendan dauden pertsonak, 2015-12-31n |
|---|---|
| Allo | 2 |
| Altsasu | 4 |
| Antzin | 0 |
| Agoitz | 6 |
| Aranguren | 0 |
| Artaxoa | 0 |
| Auritz | 0 |
| Aiegi | 0 |
| Barañain | 1 |
| Berriozar | 24 |
| Buñuel | 9 |
| Burlata | 13 |
| Zarrakaztelu | 0 |
| Cascante | 0 |
| Cintruénigo | 4 |
| Zizur | 2 |
| Corella | 7 |
| Doneztebe | 11 |
| Eguesibarra | 0 |
| Elizondo | 0 |
| Lizarra | 12 |
| Etxarri Aranatz | 0 |
| Uharte | 0 |
| Irurtzun | 5 |
| Izaba | 0 |
| Leitza | 4 |
| Lesaka-Bortziriak | 16 |
| Lodosa | 23 |
| Los Arcos | 0 |
| ***Laguntza teknikoen mailegu-zerbitzua*** | ***33*** | ***29*** | ***37*** | ***38*** | ***148*** | ***74*** |
| Altsasu | 1 | 1 | 4 | 3 | 9 | 5 |
| Antzin | 1 | | 2 | | 2 | 1 |
| Aranguren | 8 | 10 | | | 1 | 4 |
| Auritz | | 1 | | | 7 | 2 |
| Barañain | | | 1 | | 1 | |
| Buñuel | | | 2 | | 22 | 18 |
| Cascante | | | 1 | 1 | 1 | |
| Cintruénigo | | | 1 | | 7 | 6 |
| Corella | 1 | 1 | | | 12 | 2 |
| Eguesibarra | 11 | 9 | 2 | 8 | 1 | 7 |
| Lizarra | 1 | | 1 | 4 | 6 | 3 |
| Irurtzun | 2 | 1 | 1 | 1 | 19 | 3 |
| Leitza | 2 | 1 | 3 | 2 | 1 | 1 |
| Lesaka-Bortziriak | 1 | 2 | 6 | 4 | 7 | 5 |
| Lodosa | | | 1 | 2 | 3 | 1 |
| Noain | | | 1 | 1 | | 1 |
| Iruña | 4 | 2 | 8 | 10 | 40 | 8 |
| San Adrián | 0 | 1 | 1 | 1 | 5 | 2 |
| Zangoza | 1 | | 2 | 1 | 4 | 5 |
| ***Atseden-zerbitzua*** | ***2*** | ***1*** | ***19*** | ***7*** | ***42*** | ***11*** |
| Burlata | 2 | 1 | 9 | | 16 | 3 |
| Irurtzun | | | | | 5 | 1 |
| Lodosa | | | 7 | 3 | 10 | 1 |
| Noain | | | 1 | 1 | 8 | 3 |
| Azkoien | 0 | 0 | 2 | 3 | 3 | 3 |
| ***Janari-garraioa*** | ***2*** | ***1*** | ***7*** | ***3*** | ***4*** | ***4*** |
| Burlata | 2 | 1 | 7 | 3 | 4 | 4 |
| ***Orokorra, guztira*** | ***77*** | ***80*** | ***131*** | ***115*** | ***349*** | ***172*** |

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

---

## Galdera, etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 20ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Domenech Linde andreak galdera bat egin du (9-16/PES-00214), Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak artaturiko pertsonen banaketa geografikoari eta eskualdekako eta urtekako arreta-orduei buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Aipatutako parlamentariak zehazki honako honi buruzko informazioa eskatu du: “2015ean zuzeneko arreta emandakoei buruzkoa, eta 2016ko hilabeteetako datuak ote dauden jakitekoa, zuzeneko arretaren banaketa geografikoa. Zuzeneko arreta-orduen banaketa arloen eta urtearen arabera, eta zuzeneko arretaren batez besteko maiztasuna eta intentsitatea kontuan hartuta”

Esan beharra dago dokumentu honetan ematen diren datuak oinarrizko gizarte zerbitzuek, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateen artean ezarritako finantzaketa-hitzartutako finantzaketa-hitzarmena justifikatze aldera, aurkeztutako oroitidazki teknikoetatik lortu direla.

Hitzarmen horien eta Toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren artean egindako finantzaketa-hitzarmenaren arabera, bai eta maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretuaren arabera, toki entitateek txosten tekniko eta ekonomikoak aurrekontua bete beharreko ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko urtarrilean edo otsailean aurkeztu beharko dituzte.

Horrenbestez, aldez aurretiko bi gai aipatu behar dira:

Lehena. Dokumentu horretan emandako datuetan aldeak egon daitezke Nafarroako 2015eko oinarrizko gizarte zerbitzuetan esku hartzeko amaierako oroitidazkiarekin konparatuta, zeren eta azken horiek oinarrizko osasun laguntzaren eta gizarteratzeren zerbitzuari aurkeztutako oroitidazkiak baloratzeko prozesuan baitaude.

Bigarrena. Ezin da 2016. urteari buruzko daturik eman, zeren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzko araudiari jarraituz, entitateek 2016ko ekitaldiko justifikazioa 2017ko urtarrilean eta otsailean aurkeztu beharko bailukete.

Aurreko gogoeta horiek kontuan hartuta, Domenech andreak egindako galderei erantzunen diegu.

| ZUZENEKO ARRETAREN BANAKETA GEOGRAFRIKOA, ORDUEN ARABERAKOA | |
|---|---|
| OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK | ZUZENEKO ARRETAREN ORDUAK |
| Allo | 5.888,00 |
| Altsasu | 4.641,50 |
| Antzin | 7.459,25 |
| Agoitz | 3.085,00 |
| Aranguren | 3.315,00 |
| Artaxoa | 1.836,00 |
| Auritz | 5.652,00 |
| Aiegi | 3.716,80 |
| Barañain | 6.236,00 |
| Berriozar | 10.507,00 |
| Buñuel | 5.891,00 |
| Burlata | 6.102,36 |
| Zarrakaztelu | 2.631,00 |
| Cascante | 4.702,50 |
| Cintruénigo | 7.551,00 |
| Zizur | 6.509,00 |
| Corella-Castejón | 13.473,75 |
| Doneztebe | 6.030,52 |
| Eguesibarra | 5.380,00 |
| Elizondo | 4.876,00 |
| Lizarra | 3.711,42 |
| Etxarri Aranatz | 3.659,00 |
| Uharte | 3.530,00 |
| Irurtzun | 5.198,72 |
| Izaba | 5.290,22 |
| Leitza | 6.326,77 |
| Lesaka-Bortziriak | 8.495,19 |
| Lodosa | 14.325,63 |
| Los Arcos | 5.056,15 |
| Noain | 3.435,00 |
| Erriberri | 4.230,25 |
| Orkoien | 2.598,00 |
| Iruña | 177.791,84 |
| Azkoien | 8.365,25 |
| Gares | 5.997,00 |
| Zaraitzu | 4.279,25 |
| San Adrián | 6.364,00 |
| Zangoza | 7.151,00 |
| Tafalla | 6.184,21 |
| Tutera | 15.141,00 |
| Ultzama | 5.648,00 |
| Valtierra | 8.256,50 |
| Viana | 6.045,30 |
| Villatuerta | 4.355,00 |
| Atarrabia | 8.416,00 |
| **Guztira** | **445.334,38** |

| ZUZENEKO ARRETAREN ORDUEN BANAKETA, OINARRIZKOGIZARTE ZERBITZUEN BARRUTIAREN ARABERA | |
|---|---|
| **Oinarrizko gizarte zerbitzuen barrutia** | **Zuzeneko arretaren orduak** |
| Lizarra | 62.918,55 |
| Ipar-ekialdea | 25.457,47 |
| Ipar-mendebaldea | 39.227,70 |
| Iruña eta Iruñerria | 239.468,20 |
| Tafalla | 23.246,71 |
| Tutera | 55.015,75 |
| **Orokorra, guztira** | **445.334,38** |

Zuzeneko arretaren eta neurtutako intentsitatea

Arretaren maiztasunaren tipologiatzat eguneroko arreta jotzen da, zerbitzua astelehenetik ostiralera ematen denean; astean behingo arreta, astean behin eta astean lau aldiz bitarte ematen denean; hamabostean behingo arreta, hamabostean behin ematen denean; hilean behingo arreta eta noizbehinkako arreta oso noizean behin ematen denean.

Hurrengo taulan egiazta dezakegun bezala, zerbitzuak artatutako pertsonen ia % 92 maiztasun handiz artatzen dira; erdia baino lehen astean behin eta lau aldiz bitarte artatzen dira, eta % 40,45 egunero artatzen dira.

| ERABILTZAILEEN BANAKETA, ARRETAREN MAIZTASUNAREN ARABERAKOA | |
|---|---|
| **Arretaren maiztasuna** | **Arreta jaso duten pertsonen kopurua** |
| Eguneroko arreta | 1.738 |
| Astean behingo arreta | 2.208 |
| Hamabostean behingo arreta | 26 |
| Hilean behingo arreta | 4 |
| Noizbehinkako arreta | 321 |
| **Guztira** | **4.297** |

Erkidegoko batez besteko intentsitatea, erabiltzaile baten hilean izaten dituen arreta orduen batez bestekoa dela jota, 9 ordukoa da.

| ARRETA ORDUEN BATEZ BESTEKOA/HILABETEKO/PERTSONA BAKOITZEKO | |
|---|---|
| Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | orduak |
| Allo | 5,7 |
| Altsasu | 8,1 |
| Antzin | 7,9 |
| Agoitz | 6,6 |
| Aranguren | 18,4 |
| Artaxoa | 4,6 |
| Auritz | 8,0 |
| Aiegi | 10,7 |
| Barañain | 10,4 |
| Berriozar | 8,8 |
| Buñuel | 6,3 |
| Burlata | 9,1 |
| Zarrakaztelu | 8,8 |
| Cascante | 8,7 |
| Cintruénigo | 9,7 |
| Zizur | 7,4 |
| Corella-Castejón | 9,4 |
| Doneztebe | 12,6 |
| Eguesibarra | 17,9 |
| Elizondo | 12,0 |
| Lizarra | 5,7 |
| Etxarri Aranatz | 13,3 |
| Uharte | 9,2 |
| Irurtzun | 7,2 |
| Izaba | 15,7 |
| Leitza | 10,5 |
| Lesaka-Bortziriak | 11,8 |
| Lodosa | 7,1 |
| Los Arcos | 8,3 |
| Noain | 6,0 |
| Erriberri | 4,6 |
| Orkoien | 13,5 |
| Iruña | 11,9 |
| Azkoien | 9,8 |
| Gares | 8,8 |
| Zaraitzu | 8,9 |
| San Adrián | 7,3 |
| Zangoza | 7,8 |
| Tafalla | 7,6 |
| Tutera | 9,3 |
| Ultzama | 7,7 |
| Valtierra | 5,0 |
| Viana | 5,4 |
| Villatuerta | 5,8 |
| Atarrabia | 6,9 |

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

# Galdera, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 20ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Nuria Mónica Domenech Linde foru parlamentariak galdera bat egin du (9-16/PES-00215) bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratze-programari buruz. Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

2016ko maiatzaren 10eko idazkiaren bitartez, aipatutako foru parlamentariak eskatu zuen Eskubide Sozialetako lehendakariordeak idatziz erantzun ziezaion “2015eko eta 2016ko hilabeteetako gizarteratze-programari” buruzko galdera bati. Izan ere “Programak, gizarte bazterkeria jasaten dutenen edo arrisku hori dutenen gizarteratzea bultzatzen du eta gizarteratze-programa ezarrita duten oinarrizko gizarte zerbitzuen eta oraindik ezarrita ez dutenen edo gizarteratu eta lan munduan sartzeko taldeen bidez jarduten dutenen bidez koordinatzen du”.

Gizarteratze-programari atxikitako profesionalak, profila, guztirako arduraldia, eta 2015ean eta 2016an programari esleitutako portzentajea.

Gizarteratze-programari atxikitako profesionalei, profilari, guztirako arduraldiari, eta 2015ean eta 2016an programari esleitutako portzentajeari dagokionez, esan beharra dago datuak lortu direla oinarrizko gizarte zerbitzuek, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateen artean ezarritako finantzaketa-hitzartutako finantzaketa-hitzarmena justifikatze aldera, aurkeztutako oroitidazki teknikoetatik.

Hitzarmen horien eta Toki entitateen eta Eskubide Sozialetako Departamentuaren artean egindako finantzaketa-hitzarmenaren arabera, bai eta maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretuaren arabera, toki entitateek txosten tekniko eta ekonomikoak aurrekontua bete beharreko ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko urtarrilean edo otsailean aurkeztu beharko dituzte.

Gaur egun, Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Gizarteratzearen Zerbitzua txosten horiek baliozkotzen eta berrikusten ari da; hori dela eta, aurreikusitakoaren arabera, behin betiko datuak ekainaren amaieran edukiko ditugu, eta data horretan eskuratu ahalko dira.

2016. urteari buruz eskatutako datuei dagokienez, ezin da ekitaldi horri buruzko daturik eman, zeren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen finantzaketari buruzko araudiari jarraituz, toki entitateek 2016ko ekitaldiko justifikazioa 2017ko urtarrilean eta otsailean aurkeztu beharko bailukete.

Erabiltzaileak, programatik arreta emandakoak eta esku-hartzeak, guztira, programatik aplikatutako baliabide bakoitzeko. Xehakatuta adieraztea banakako ibilbideak, akonpainamendu soziala duten pertsonak, eta gizarteratzeko edo gizarteratzeko eta laneratzeko akordioak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 2015ean eta 2016ko hilabeteetan eginak.

Eskatutako informazioari dagokionez, esan beharra daukagu oinarrizko gizarte zerbitzuek erabiltzen duten tresna informatikoak (SIUSS-Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistema) ez duela aukerarik ematen berariazko datuak ustiatzeko oinarrizko gizarte zerbitzuetako oinarrizko osasun laguntzako programen arabera (eskatutako kasuan, gizarteratze programako erabiltzaileak).

Bestalde, “banakako ibilbideak, akonpainamendu soziala duten pertsonei” dagokienez, esan beharra daukagu ezen bai laguntzako banakako ibilbideak, bai akonpainamendu soziala berezko dituela oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalek erabiltzen duten metodologiak; hori dela eta, oinarrizko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile guztiak laguntzarako banakako ibilbide baten onuradunak dira, akonpainamendu sozialeko metodologia baten bitartez.

Horri dagokionez, SIUSS-Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Erabiltzaileen Informazio Sistemaren arabera, 2015. urtean, Oinarrizko Laguntzan 64.142 artatu ziren, eta guztiak ere banakako ibilbide baten onuradun izan ziren, bai eta oinarrizko gizarte zerbitzuek egindako esku-hartzearen metodologiak biltzen duen akonpainamendu/jarraipenaren onuradun ere.

Oinarrizko gizarte zerbitzuekin izenpetutako gizarteratzeko edo gizarteratzeko eta laneratzeko akordioei dagokienez, gizarteratze errentaren egungo araudiak ezartzen du prestazio hori hartzen duten familia-unitateek horrelako akordio bat izenpetzeko betebeharra dutela. Horri dagokionez, 2015. urtean, guztira gizarteratze-errenta jaso zuten 12.875 familia-unitatek gizarteratze-akordio bat izenpetu zuten.

Gizarteratzeko eta laneratzeko taldeei dagokienez, esan beharra dago haien helburua dela oinarrizko gizarte zerbitzuetatik deribatu eta gizarte bazterkeriako egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzea erraztea.

Gaur egun gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak gizarte zerbitzuetako barruti guztietan daude ezarrita:

• Lizarrako gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak Lizarrako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako barrutia artatzen du, non oinarrizko gizarte zerbitzuetako bederatzi oinarrizko eskualde baitaude bilduta: Allo, Antzin-Ameskoa, Los Arcos, Lizarra, Lodosa, Gares, San Adrián, Viana, Villatuerta.

• Tafallako gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak Tafallako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako barrutia artatzen du, non oinarrizko gizarte zerbitzuetako bost oinarrizko eskualde baitaude bilduta: Artaxoa, Zarrakaztelu, Erriberri, Azkoien eta Tafalla.

• Tuterako gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak Tuterako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako barrutia artatzen du, non oinarrizko gizarte zerbitzuetako sei oinarrizko eskualde baitaude bilduta: Buñuel, Cascante, Cintruénigo, Corella, Valtierra, Tutera

• Iruñerriko eta Iparraldeko gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak gizarte zerbitzuetako hiru barruti artatzen ditu, beren oinarrizko eskualdeekin:

– Iruñerria: Aranguren, Barañain, Burlata, Berriozar, Zizur, Eguesibar, Uharte, Noain, Orkoien, Ultzama eta Atarrabia.

– Ipar-mendebaldea: Altsasu, Elizondo, Doneztebe, Etxarri Aranatz, Irurtzun, Leitza, Lesaka.

– Ipar-ekialdea: Agoitz, Auritz, Izaba, Zaraitzu, Zangoza.

Gizarte Zerbitzuetako barrutien araberako datuak, 2015. urteari buruzkoak, ondoren datozenak dira:

• Lizarrako Barrutiko oinarrizko gizarte zerbitzuek 124 pertsona deribatu zituzten (73 gizonezko eta 51 emakumezko), eta haietatik bi heren gizarteratze errentaren titular edo onuradun ziren.

– Guztira, 160 pertsonak parte hartu zuten gizarteratze-ibilbideetan, gizarteratzeko eta laneratzeko taldearen akonpainamenduarekin.

– 17 pertsonak lanerako prestakuntzako hiru ikastaroetatik bat egin zuten (bide garbiketa, ostatu-garbiketa, supermerkatuko langileak), 200 ordu baino gehiagoko prestakuntzarekin, guztira.

– Enplegu sozial babestuko programetan lanaren aurretiko 33 gaikuntza tailer egin ziren, eta oinarrizko gizarte zerbitzuetako 115 parte-hartzaile aritu ziren haietan; eta enplegurako hiru laguntza-talde eratu ziren, 31 parte-hartzailerekin.

– 12 pertsona kontratatu ziren enpresekiko zuzeneko bitartekaritza-prozesuen bitartez.

– Lan horiek egiteko Lizarrako gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak lau lanaldi ditu, bost profesionalen artean egiten direnak: gizarte lanaren eta hezkuntzaren edo gizarteratzearen arloko titulazioak dituzte. Ezarritako ratioa profesional bakoitzeko hogei espediente aktibokoa da (koordinazio-lanak egiten dituenak 13 baizik ez ditu hartzen).

• Tuterako Barrutiko oinarrizko gizarte zerbitzuek 93 pertsona deribatu zituzten (49 gizonezko eta 44 emakumezko), eta haietatik hiru laurdenak gizarteratze errentaren titular edo onuradun ziren.

– Guztira, 158 pertsonak parte hartu zuten gizarteratze-ibilbideetan, gizarteratzeko eta laneratzeko taldearen akonpainamenduarekin.

– 28 pertsonak lanerako prestakuntzako lau ikastaroetatik bat egin zuten (familia inguruneko zainketak, arrain-saltzailea, harakina, jasomakina), 250 ordu baino gehiagoko prestakuntzarekin, guztira.

– Enplegu sozial babestuko programetan lanaren aurretiko 10 gaikuntza tailer egin ziren, 68 parte-hartzailerekin, eta enplegurako beste hiru laguntza-talde eratu ziren, 192 parte-hartzailerekin.

– 11 pertsona kontratatu ziren enpresekiko zuzeneko bitartekaritza-prozesuen bitartez.

– Lan horiek egiteko Tuterako gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak lau pertsona dauzka, bi gizonezko eta bi emakumezko, gizarte laneko eta gizarte hezkuntzako titulazioekin. Ezarritako ratioa profesional bakoitzeko hogei kasukoa da; koordinatzaileak, berriz, hamalau hartzen ditu.

• Tafallako Barrutiko oinarrizko gizarte zerbitzuek 92 pertsona deribatu zituzten (57 gizonezko eta 35 emakumezko), eta bitik bat gizarteratze errentaren titular edo onuradun ziren.

– Guztira, 150 pertsonak parte hartu zuten gizarteratze-ibilbideetan, gizarteratzeko eta laneratzeko taldearen akonpainamenduarekin.

– 12 emakumek lanerako prestakuntzako bi ikastaroetatik bat egin zuten (adingabeak zaintzea, etxez etxeko laguntza zerbitzua), 40 ordu baino gehiagoko prestakuntzarekin.

– Enplegu sozial babestuko programetan lanaren aurretiko 9 gaikuntza tailer egin ziren, 84 pertsonarentzat, guztira. Gainera, guztira 9 enplegurako laguntza-talde antolatu ziren oinarrizko gizarte zerbitzuetako erabiltzaileentzat, eta haietan 130 pertsonak hartu zuten parte. 42 emakume arabiarrek ere enplegua eskuratzeari buruzko sei orduko informazioa hartu zuten alfabetatze-taldetan.

– Zuzeneko harreman eta bitartekaritza eduki genuen 98 enpresarekin, eta lau pertsonak kontratu bat lortu zuten.

– Lan horiek egiteko, Tafallako gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak lau langile dauzka (bi gizonezko eta bi emakumezko; horietatik bik gizarte laneko diplomadunak dira, bat gizarte hezkuntza diplomaduna da eta beste bat gizarteratzearen arloko goi teknikaria da). Ezarritako ratioa hogei kasukoa da profesional bakoitzeko, eta hamabi kasukoa da, berriz, koordinazio-lanak egiten dituen pertsonaren kasuan.

• Iruñerriko eta Ipar-ekialdeko eta Ipar-mendebaldeko oinarrizko gizarte zerbitzuek 205 pertsona deribatu zituzten (124 gizonezko eta 81 emakumezko), baina azkenean 177rekin lan egin zen; horietatik ehuneko 60 gizarteratze errentaren titularrak edo onuradunak dira.

– Guztira, 308 pertsonak parte hartu zuten gizarteratze-ibilbideetan, gizarteratzeko eta laneratzeko taldearen akonpainamenduarekin.

– Lanerako prestakuntzako zortzi ekintza sustatu dira guztira (bide garbiketa, biltegiko langilea, harategiko eta urdaitegiko laguntzailea, zerbitzu orokorrak eta mantentzea...), eta haietan 91 pertsonak hartu zuten parte, 728 prestakuntza-ordurekin, guztira.

– Enplegu sozial babestuko zortzi programatan lanaren aurretiko gaikuntza tailerrak egin dira, enplegua bilatzeko trebetasunei buruzko hamar tailerren bitartez; haietan, 74 pertsonak hartu dute parte. Gainera, 8 enplegurako laguntza talde antolatu dira, eta haietan oinarrizko gizarte zerbitzuetako erabiltzaile diren 93 pertsonak hartu dute parte.

– Laneko bitartekaritzaren bidez, 2015ean gizarteratzeko eta laneratzeko taldeak oinarrizko gizarte zerbitzuetako 10 erabiltzaileren kontratazioa bideratu da.

– Lan horiek egiteko, taldeak zortzi lanpostu dauzka, bederatzi profesionalek betetzen dutena (lau gizonezko eta bost emakumezko; horietatik lauk gizarte laneko diplomatura dute eta bostek, berriz, gizarte hezitzailearen gradua edo gizarteratzearen arloko goi mailako teknikariaren titulua dute). Ezarritako ratioa aldi berean hogei espediente aktibokoa da profesional bakoitzeko, eta hamar kasukoa da, berriz, koordinazio-lanak egiten dituen pertsonaren kasuan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an.

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

# Galdera, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zein den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 20ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

9-16/PES-00216 informazio-eskariaren bitartez, jakin nahi da zien den Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena, Cintruenigoko Udalak, Otero de Navascués Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoko eta La Paz DBHIko guraso-elkarteek eta herriko ikastetxe publikoetako zuzendaritzek herrian Batxilergoa eta LHko ikastaroren bat ezartzeko egin duten proposamenari dagokionez. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Une hauetan, ez dago Cintruenigoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan Batxilergoa ezartzeko asmorik. Ikastetxe hori sortu zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteko, zeren eta eskualdeko batxilergoko postuen eskaria nahikoa aseta daude Corellako Alhama BHIaren bitartez, eta Arteko Batxilergoko modalitateei dagokienez, herri bereko Arte eta Diseinuko Goi Eskolaren bitartez. Izan ere, Cintruenigotik 5 kilometrora dago Corella.

Batxilergoko eskaintza, derrigorrezko irakaskuntza bat ez denez, ez da modu zatikatuegian egin behar, zeren eta haren egiturak (modalitate desberdinak, aukerako ikasgaiak eta abar) eta ikasleen eskariak gomendagarri egiten baitute zenbait ikastetxe eta herritan baizik ez eskaintzea. Une hauetan, Corella, Cintruénigo eta Fitero herrietarako eskaintza Corellako BHIan zentratzen da. Bertan, 2015-2016 ikasturtean 77 ikasle zeuden, eta 2016-2017 ikasturterako, berriz, 85 ikasle inguru egotea aurreikusi da. Ikasle horiek bi ikastetxetan banatzeak hezkuntza-kalitatea gutxitzea ekarriko luke, ikasle ezak ekarriko bailuke modalitaterik eta aukerako ikasgairik ezin eskaintzea.

Lanbide Heziketako eskaintzari dagokionez, ez dago aurreikusita herrian heziketa ziklorik ezartzea. Batxilergoko eskaintzarekin gertatzen den bezala, eskualdeko herrietarako lanbide heziketako prestakuntza Tuterako ETI IIPan eskaintzen da, eta Arteko Batxilergoko modalitateei dagokienez, Corellako Arte eta Diseinuko Goi Eskolan. Eskariaren dibertsifikazioa, ikasketen egitura, instalazioen beharra eta irakasleen berariazkotasuna direla eta, ez da gomendagarria eskaintza ikastetxe askotan banatuta egotea. Hori dela eta, une hauetan ez dago aurreikusita eskaintza hori beste herri batzuetara zabaltzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

# Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHIan jarraipena emateko.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigon Ingelesez Ikasteko Programa ezarrita daukan Otero de Navascués ikastetxe publikotik datozen ikasleei herriko La Paz DBHIan jarraipena emateko. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 20ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00217 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak apirilaren 19ko 118/2016 Ebazpenaren bitartez, PAI programatik heldu diren ikasleek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan programa horren jarraitutasuna araupetu du, ingelesez emanen diren gaiak eta saioak doitu, “Bigarren Hezkuntzako Programa Eleaniztuna” deitutako programa berri baten bitartez.

Programa hau ingelesez ikasteko programatik heldu diren ikasleak hartzen dituzten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan ezartzen joanen da, bai eta frantsesez ikasteko programatik eta alemanez ikasteko programatik heldutako ikasleak iristen direnean ere.

Horrenbestez, “Otero de Navascués” ikastetxe publikoan ingelesez ikasteko programan dihardu-ten ikasleek Cintruenigoko “La Paz” DBHIan jarraituko dute ikasten Bigarren Hezkuntzako Programa Eleaniztunean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa zer aurreikuspen duen Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko Udalak, La Paz DBHIko guraso-elkarteak eta ikastetxeko zuzendaritzak espazioak handitzeko egin duten eskaerari buruz. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 20ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeak 9-16/PES-00218 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Planteatutako gaiari dagokionez, non erantzuna eskatzen baita Hezkuntza Departamentuak Cintruenigoko “La Paz” Bigarren Hezkuntzako Institutuan espazioak zabaltzeko dauzkan irizpide eta aurreikuspenei buruz, esan beharra dago Hezkuntza Departamentua hainbat aukera aztertzen ari dela DBHIko egungo eraikina zabaltzeko, matrikulak daukan bilakaeraren arabera, egungo azpiegiturak optimizatzeko asmoz.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## Galdera, eskola-jazarpenaren aurkako neurriei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higueras jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-jazarpenaren aurkako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko maiatzaren 20ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

UPN parlamentu-taldeak 9-16/PES-00219 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak ohikoak diren harremanak izan ditu ministerioekin eskola-jazarpenaren aurkako neurriak koordinatzeko. Kontsultatu den gaia lantzeko deitu diren azken bilerak (2016koak) behin eta berriz atzeratu ditu Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak berak. Hori dela eta, harremana ohiko bideetatik izan dugu (telefonoz eta posta elektronikoz), eta hurrengo bilerarako deialdiaren zain gaude; izan ere, azkeneko bilera 2015. urtearen amaieran egin zen.

Halaber, departamentu honek jarraitzen du erabiltzen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren eta Barne Ministerioaren zerbitzuak, Ikastetxeetako eta haien Inguruneetako Bizikidetasunerako eta Segurtasuna Hobetzeko Plan Zuzendariaren baitan. Plan horren helburuak honako hauek dira, besteak beste: adingabeek eta gazteek hobeki ezagutzea delinkuentziaren prebentziorako eta biktimak babesteko baliabide polizialak, bai eta herritarren segurtasun gaiak ere –esate baterako, eskolako jazarpena, gazteen bandak, drogak eta alkohola eskuratzea, bandalismoa, emakumearen aurkako indarkeria, xenofobia edo arrazakeria, bai eta Interneten eta teknologia

berrien erabilerarekin lotutako berariazko beste arrisku batzuk ere–; horretarako, ikastetxeetan ikasleentzako jarduerak, hitzaldiak eta konferentziak eginen dira, polizia adituen eskutik.

Hezkuntza Departamentuak doako telefono zenbaki bat badauka, eskolako jazarpeneko kasuak eta bizikidetasunarekin lotutako beste gorabehera batzuk salatzeko, egunean 24 orduz deiak hartzen dituena. Kasu horiek, gero, lehentasun- edo urgentzia-hurrenkeran artatutako dituzte Bizikidetasun Ataleko aholkulari adituek beren lanaldian zehar.

Modu paraleloan, irakasleek eta zuzendaritzataldeek berariazko prestakuntza hartzen dute horrelako kasuak saihesteko; eskolako jazarpena susmatzen duten kasuetan jarduteko protokolo bat badago; eta gurasoek eta ikasleek prebentziorako laguntza daukate, bai eta kasuren bat gertatzen denean jarduteko ere.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusita dauka eskolako jazarpenari buruzko prebentziorako eta esku-hartzerako proiektu bat abiatzea 2016-2017ko ikasturteko irailean. Proiektu hori oinarritzen da eskolako jazarpenaren eta ziberjazarpenaren arazoari erantzun orokor bat emateko beharrean eta Departamentuak jazarpeneko egoeretan esku hartzearen arloan dauzkan esperientziak etengabe hobetzean; azken horretan modu koordinatuan dihardute Hezkuntza Ikuskapenaren Zerbitzuak eta Bizikidetzarako Aholkularitzak 2004. urtetik.

Eskolako jazarpena edo berdinen arteko tratu txarra gure ikasleen interakzio sozialeko moduetan gertatzen den errealitate triste bat da, non, askotan, helduaroan dauzkagun interakzio sozialeko, botere-abusuko, indarkeriaren bidezko beldurrarazte- edo umilazio-eskemak berritzen baitira, besteak beste, talde sozialetara sartzeko proba gisa edo boterearen agintekeriaz edo inposizioz baliatzeko bide gisa. Teknologia berrien errealitateak eragin du fenomenoak dimentsio aurreikusi gabeak hartzea, maila birtualean gertatzen denean, eta horrek biktimaren defentsa eza areagotzen du.

Hezkuntza Departamentuak prebentzioa sustatu izan du beti fenomeno horri aurre egiteko modu onenaren gisara. Prebentzioa honako honetan datza: trebetasun komunikatiboen eta gatazken kudeaketaren garapena; gaitasun emozionalak, agintaritza demokratikorako estrategiak eta errespetuzko balioen hitzarmena eta bizikidetasun arauen arloko enpatia. Hala eta guztiz ere, urrats bat aurrera emateko eta zero tolerantziako estrategia bat antolatzeko beharra ageri-agerikoak dira gaur egun.

“Laguntza” proiektua zentro estandar batean egiazki aplikatua izateko diseinatu den proiektu bat da, baina behar adinako malgutasuna dauka ikastetxe bakoitzak bere beharrizan eta errealitateen arabera egokitzeko. Aukera-sorta bat da, ikastetxe bakoitzak –behin hezkuntza erkidegoa ados jarri denean jazarpena zer den eta zer ez den esaterakoan, eta publikoki adierazi duenean bizikidetasunerako bortxazko modu horren gaineko errefusa– jarduteko garaian bere indarguneak eta ahulguneak berrazter ditzan.

“Laguntza” proiektua gida bat izanen da, ikastetxeek, bizikidetasuneko batzordeen bitartez, eskolako jazarpena dela-eta daukaten proiektua zehatz dezaten. Aukera ugari ditu kontzientziaziokanpaina ikasgelan eta ikasgelatik kanpo ere egiteko. Eta gure ikasgelan jazarpeneko egoera bat identifikatzen dugunean egin beharreko urratsak ematen ditu.

Heldu den ikasturtean, 5 ikastetxek pilotu erara aplikatuko dute “Laguntza” programa, Hezkuntza Departamentuaren aholkuekin. Programaren aplikazioa ebaluatuta, Nafarroako ikastetxe guztietara zabalduko da. Ikastetxe bakoitzean programa koordinatuko da horretarako gaitutako irakasleen bitartez. Prestakuntzazko berritasun hori datza eskolako jazarpenaren gaia dela-eta gaikuntza hartzeko 35 ikastaro bat egitean, gaia ongi ezagutu nahi duten irakasleentzat. Ikastaroaren edukiek gaitasuna emanen dute nork bere ikastetxean prebentzioko, esku hartzeko eta sentsibilizazioko estrategiak dinamizatzeko.

Bestalde, familientzako sentsibilizaziokanpainak gurasoen elkarteetan emandako prestakuntzaren bitartez sustatzen jarraituko dira.

Hartara, Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzen du dagokion erantzukizuna, abusuzko, hertsatzeko eta indarkeriaz baliatzeko harreman sozialen biktima diren adingabeen sufrimendua desagerrarazteko.

Iruñean, 2016ko ekainaren 9an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzekoa.

**Izangai onartuen behin betiko zerrenda**

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzeko deialdiko 4. oinarrian ezarritakoaren arabera –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2016ko maiatzaren 16ko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukaturik, bidezkoa da deialdian onartu diren izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Izangai bazterturik egon ez denez, bidezkoa da zerrenda hau behin betikotzat onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek ERABAKI DU:

**Lehena.** Onestea Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda. Hona zerrenda hori:

Onartuak:
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Angel

Baztertuak:
Inor ere ez.

**Bigarrena.** Xedatzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2016ko ekainaren 27an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga